

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO  
GOBERNU SALAKO BATZORDEAK 2026KO APIRILAREN 17AN  
HARTUTAKO ERABAKIAK**

**BERTARATUAK:**

**Presidente jauna**

Ignacio José Subijana Zunzunegui jauna

**Jaun/andreak**

Luis Ángel Garrido Bengoechea jauna

Jose Luis Nuñez Corral jauna

María Josefa Barbarín Urquiaga andrea

Aner Uriarte Codon jauna

Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jauna

Ignacio Sanchez Moran jauna

**Gobernu-idazkari andrea**

Blanca Rosa Barbero Blanco andrea

**LEHENENGOA – AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA  
ETA ONARTZEA.**

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

**BIGARRENA.– AURREKO BILERAKO ERABAKIAK  
BETEARAZTEA.**

Salari aurreko bileran hartutako erabakiak betetzen direla jakinarazten zaio.

**ERABAKIAK**

**1.- Magistratuak eta epaileak**

## **1.1. BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALEKO ETA FAMILIA, HAUR ETA GAITASUN ATALEKO EPAILEEN BATZARRA, 2026KO MARTXOAREN 27AN EGINA.**

Salari jakinarazi zaio Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko eta Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko Epaileen Batzarreko akta, 2026ko martxoaren 27koa, honako hau dioena hitzez hitz:

*"09:00etan eratu da Barakaldoko Barruti Judizialeko Epaileen Batzarra (Arlo Zibileko Atala eta Familia, Haur eta Gaitasun Atala), Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko presidentea, Sylvia Martín Blanco epaile-magistratua buru dela (Instrukzioko Ataleko 1 zk.ko plazako titularra); atal eta plaza hauen titularrak bertaratu dira:*

### ARLO ZIBILEKO ATALA:

- Ana Rosa Rincón Varona andrea.
- Guillermo Martínez Sellers jauna.
- Jesús Manuel Fernández Fernández jauna.

### FAMILIA, HAUR ETA GAITASUN ATALA:

- Julia Sauri Martín andrea.
- Javier García García jauna.
- Jesús Manuel Fernández Fernández izan da idazkaria.

*Gai-zerrenda honako hau izango da:*

- Arlo Zibileko Ataleko banaketa-arauak
- Atxikitze sistema egokitzea, Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Atalean ordezkatzeko helburuz (3 zk. ko Plaza).
- Zenbatekoari buruzko irizpidea bateratzea, kontsumitzaileak kontratu-dokumentazioa entregatzeko eskatzen duen prozeduretan.
- Hilean IKUSTALDIRIK gabe emandako epaien kopurua.

*Aurreikusitako orduan, Epaileen Batzarra hasten da, eduki honekin:*

### 1- BANAKETA-ARAUAK Arlo Zibileko Atala:

#### 1a) Familia eta Gaitasun Ataleko 2 zk.ko Plazaren Gai Zibila (aurreko 6 zk.ko Epaitegia):

*2026ko urtarrilaren 29ko txosten juridikoa ikusita, Barakaldoko Auzialdi Auzitegi honetako Epaileen Batzarreak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egindako kontsultaren emaitza, txostenaren eduki osoa onartzen da, eta, beraz, Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegiak (gaur egun, Familia eta Gaitasun Ataleko 2 zk.ko plaza) orain arte ezagutzen zuen gai zibila Auzialdi Auzitegi honetako Arlo Zibileko Atalak ezagutzen du (1., 2., 3. eta 4.zk.ko Plazak), banaketa-arauak kontuan hartuta.*

*Aurreko akta hau sinatu ondoren aplikatuko da, eta horri buruzko instrukzioa emango da.*

*Aurrekoa ikusita, Auzialdiko Ataleko Magistratuek FUNTZIO-ALDAKETA duen Zerbitzu-eginkizunaren eskaera proposatzeko beharra planteatzen dute, Auzialdiko Ataleko plaza berria benetan sortu arte, orain arte Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegiak (Familia eta Gaitasun Ataleko 2 zk.ko Plaza) ezagutzen zituen prozedurak jasotzean bere gain hartuko duten lan-karga handitzearen ondorioz.*

*Erabaki da Batzar honen ondoren proposamen oinarritu bat egingo dela, eta Gobernu Salari helaraziko zaiola.*

#### 1b) Familia eta Gaitasun Arloko Ataleko 1. eta 2. zk.ko plazaren arteko banaketa, BJLOren 86.5 artikulua beren gain hartzen dituzten gai berriei dagokienez.

*Haur eta Gaitasun Ataleko 2 zk.ko plazako magistratuak azaldu duenez, Atal bereko 1. zk.ko Plazako magistratuarekin bat etorritik, 2 zk.ko plazak bere gain hartuko du Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2025 Legearen I. TITULUAN araututako Filiazio-prozedurez eta Borondatezko-jurisdikzioko espedienteen ardura (Adingabeen eta desgaitasuna izanik beren gaitasun juridikoa baliatzeko laguntza-neurriak dituzten*

pertsonen ondasun eta eskubideen xedatze- eta kargatze-egintzak edo bestelakoak egiteko baimen edo onespen judiziala).

BJLOren 86.5 artikulua arabera Familia eta Gaitasun Arloko Atalak bere gain hartutako gainerako gaiak, espezializazio-akordioetan sartuta ez daudenak, ausaz banatuko dira, % 70ean 2 zk.ko plazarako eta % 30ean 1 zk.ko plazarako; hala ere, ondoren Gobernu Salak berrikusi dezake.

Epaileen Batzarrak berrikusi egingo du banaketa hau, espezializatzeako akordioak aldatzen edo indargabetzen badira.

Honekin batera doazen arauak ere aplikatuko dira akta hau sinatu ondoren.

ERANSKINA ERANTSI DA, FAMILIA ETA GAITASUN ATALA BANATZEKO ARAUAK JASOTZEN DITUENA. (1. ERANSKINA).

1c) Banaketa-arauak eguneratzea, dauden arauak arlo zibilekoak, familiakoak eta gaitasunekoak baitira.

2020ko urtarrilaren 17an onartutako arlo zibileko arauak berrikusi ondoren, erabaki da honako puntu hauek kentzea: 1.1; 1.2; 1.3; D letra, E letra; 2., 3., eta 4. puntuak ere kentzea.

Jurisdikzioaren luzapenari buruzko 5. puntuari dagokionez – aurrerantzean, 4. puntua –, bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

"5.- Jurisdikzio zibilean irizpide berari jarraituko zaio, 86.5 artikuluan aurreikusitako eskumenak izan ezik, familian eta gaitasunean espezializatutako Atalari banatuko zaizkio, bere banaketa-arauen arabera."

6. puntuari dagokionez – aurrerantzean, 5. puntua –, honela idatzita geratu da:

«Sistema horri berari jarraituko zaio epailea abstenitzen bada, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak onartuta.»

Honekin batera doazen arauak ere aplikatuko dira akta hau sinatu ondoren.

ARLO ZIBILEKO ATALERA KO BANAKETA-ARAUEN ERANSKINA ERANTSI DA (2. ERANSKINA).

2.- ERRETTEN SISTEMA EGOKITZEA, BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALEKO 3 ZK. KO PLAZAKO LANPOSTUA BETETZEKO.

Aho batez erabaki da zaintalde-egutegia ez aldatzea, kontuan hartuta Auzialdiko gainerako Plazen agendak jada beteta daudela aurretiko seinalamenduekin, eta argudio gisa gehitu da jada gehiegizko lan-karga dagoela.

Kasu honetan, Arlo Zibileko Ataleko 3.zk.ko Plazako erretenak eragindako asteak maiatzaren 18tik 22ra eta ekainaren 29tik uztailaren 3ra bitartekoak izango lirarteke; izan ere, plaza hori erreten-sistematik salbuetsita egongo litzateke 2026ko abuztuan, eta hurrengo astea uztailaren 3tik aurrera izango litzateke, 2026ko urrian.

Aparteko beharra sortuz gero, kanpoko ordezkia izendatzeko eskatuko da.

3.- KONTSUMITZAILEAK KONTRATU-DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEKO ESKATZEN DUEN PROZEDURETAKO ZENBATEKOARI BURUZKO IRIZPIDEA BATERATZEA.

Arlo Zibileko 4. zk.ko Plazako Magistratuak proposatu du prozedura horietarako zenbatekoa finkatzeko irizpide bat ezartzea, erakundeari dokumentazio hori biltzeak ekar diezaiokeen kostua kontuan hartuta.

Ez da adostasunik lortu zenbateko zehatza finkatzeari dagokionez, baina bai prozedura zenbateko jakin batekoa izateari dagokionez.

Hala, kontratuak eta dokumentuak entregatzea xede duten prozeduretan (PZLren 251.3.2 art.), munta ez da zehaztugabetzat joko; aitzitik, prozesuaren interes ekonomikoaren arabera zehaztu ahal izango da; PZLren 251 3.11 art.an ezarritakoarekin bat zehaztu ahal izango da).

#### 4.- HILEAN IKUSTALDIRIK GABEKO EPAI KOPURUARI BURUZKO IRIZPIDEA BATERATZEA.

2. zk. ko Plazako Magistratuak proposatu du hilean ikustaldirik gabeko 12 epai ematea, eta denak daude ados.

Batzarrak gai horri buruzko eztabaida hasi du. Barakaldoko Lehen Auzialdiko Epaitegietako zenbakiek BJKNren gutxi gorabeherako modulua gainditu zuten, eta horrek,aldi berean, gorakada nabarmena izango du, Barakaldoko Lehen Auzialdiko 6 zk. ko Epaitegiak orain arte aztertzen zituen auzigaiak bere gain hartu baititu.

Gaur egun, ia magistratu guztiak % 180-200tik gorako produktibitatea aitortzen ari dira. Erabat onartezina da azken erreformak indarrean sartu ondoren handitu den lan-kargaren bolumena. Egoera horretan, ikustaldi-seinalamenduak murriztu egin behar izan dira, izugarri handitu baitira epaia eman aurretik edo aurretiazko entzunaldia egin ondoren seinalamendurik gabe geratzen diren prozedurak.

Ikustaldiak gehiegi luza ez daitezzen, Batzarrak aho batez proposatu eta erabaki du aurretiko seinalamendurik gabeko hitzezko prozedurak 12tan finkatzea, eta prozedura horietan epaia hilean emango da.

Batzarrak irizpidea Abokatuen Elkargoari eta Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoari jakinarazteko eskatu du.

Barakaldo, 2026ko martxoaren 27a.

#### BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO FAMILIA ARLOKO ATALEKO BANAKETA-ARAUAK (1. ERANSKINA):

1. Familia Arloko Ataleko 1. zk.ko plazak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren 1992ko irailaren 16ko espezializazio-erabakiaren arabera, Kode Zibilaren I. liburuko IV. eta VII. tituluetan aurreikusitako jardun judizialen berri izango du, bai eta Familia Zuzenbidearen arloan legeek esleitzen dizkioten beste gai guztien berri ere.

2. Familia Arloko Ataleko 2. zk.ko plazaren gaineko ardurak izango da, espezializazio-akordioaren arabera, pertsonen gaitasunari buruzko auzigaiak, Kode Zibilaren I. liburuko IX. eta X. tituluak, eta horien ondoriozko tutoretzak, kuradoretzak eta gainerako betearazpenak, barnean direla nahasmendu psikikoaren ondoriozko barneratze ez-borondatezkoak.

3. Familia Arloko Ataleko 2. zk.ko plazaren ardurak izango dira Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2025 Legearen I. zk.ko TITULUKO VIII. KAPITULUAN araututako filiazio-prozedurak eta borondatezko jurisdikzioko espedienteak (Adingabeen eta ahalmen juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituzten pertsona desgaituen ondasun eta eskubideei buruzko xedapen-egintzak, kargak edo bestelakoak gauzatzeko baimen edo onespén judiziala).

4. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 86.5 artikulua arabera Familia eta Gaitasun Atalak bere gain hartutako gainerako gaiak, espezializazio-akordioetan sartuta ez daudenak, ausaz banatuko dira, % 70ean 2 zk.ko plazarako eta % 30ean 1 zk.ko plazarako; hala ere, ondoren Gobernu Salak berrikus dezake.

5. Epailen Batzarrak banaketa-arau hauek berrikusiko ditu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aipatutako espezializazio-akordioak aldatzen edo indargabetzen baditu.

#### BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALEKO BANAKETA-ARAUAK (2. ERANSKINA):

1.- Auzigaiak ausaz banatuko dira Auzialdi Arloko Ataleko 1, 2, 3 eta 4 zenbakietako Plazen artean, une bakoitzean indarrean dauden banaketa moten arabera – gaur egun BJKNk erabakitakoak –.

2. Era berean, ausaz txandakatuko dira ebakuntza kirurgikoetarako baimen-eskaerak eta pazientearen autonomiarekin zerikusia duten gainerakoak.

3. SALBUESPENA IZANGO DA auziaren aurrekoa edo aurrekaria Lehen Auzialdi Epaitegi horietakoren baten ardurak izan duen edo hartaz arduratzen ari den beste bat denean; kasu horretan, Plaza horretan bertan banatuko da, eta dagokion mailako txanda beteko da, Plaza horretan osorik edo zati batean.

*Horretarako, prozedura hasteko agiria aurkezten duenak aurreko prozeduraren zenbakia eta ezagutu duen edo ezagutzen ari den Plaza adierazi beharko ditu.*

*Arau honetan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hauek hartuko dira AURREKARITZAT:*

*A) Demanden ondorioz aurkezten diren demandei dagokienez, alde zuzeneko kautelazko edozein neurri.*

*B) Ondasunak edo eskubideak enbargatu zaizkien prozedurak, jabariko edo eskubide hobeko hirugarrenotzei dagokienez*

*Epaiketok jurisdikzio-ordena desberdinetatik edo premiamenduzko administrazio-prozedura batetik badatoz, epaiketa arruntaren motan sartuko dira.*

*C) Borondatezko jurisdikzioko espedienteetan, aurkakotzak berekin badakar alderdiak administrazioarekiko auzien epaiketa batera bidaltzea, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen arabera, epaiketa berria espedienteaz arduratu zen Plazari banatuko zaio, eta txanda beteko du.*

*D) Alderdi berek jada aurkeztu dituzten prozedurak, prozedura eta erreklamazio berberak daudenean, txandakatu egingo dira prozedura horien berri izan duenari. Horretarako, aurrekariz egiten den banaketa-eginbidean agerraraziko da, aurrekari gisa balio duen prozedura adierazita. (Nobedadea, 2019ko urtarrilaren 17ko Batzarra).*

*Aurreko aurrekariaren arabera esleipena zuzena den kasu guztietan, gai nagusiaren banaketa kontuan hartuko da, ondoren beste gai batzuekin konpentsatzeko.*

*4.- Balmasedako Epaitegietatik datozen auzien jurisdikzioa luzatzen den kasuetan, honako erabaki hauek hartzen dira:*

*- Jurisdikzio-luzapenean Balmasedatik datozen auzigaiak, Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzkoak badira, zuzenean esleituko zaizkio Barakaldoko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalari. Gainerakoak Instrukzioko Ataletako plazen artean txandakatuko dira, Gobernu Salak finkatutako arauaren arabera, Ataleko plazen arteko ordena korrelatiboaren arabera, 1 zk.ko Plazatik hasita.*

*- Jurisdikzio zibilean irizpide berari jarraituko zaio, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 86.5 artikuluan aurreikusitako eskumenak izan ezik, familian eta gaitasunean espezializatutako Atalari banatuko zaizkio, bere banaketa-arauen arabera.*

*Ausazko txandagatik dagokien prozedura bat eta, ondoren, beren eskumen espezifikotik eratorritako beste bat esleitzean esleipenak bikoizten badira, berehala konpentsatuko dira, eta ohiko bidetik dagokion hurrengo banaketatik salbuetsiko dira.*

*5.- Titularren abstentzioak.- Sistema hori bera erabiliko da Bizkaiko Probintzia Auzitegiak epailea abstenitzea onartzen badu. "*

*Batzarrean planteatutako puntuari buruz eztabaidatu ondoren, Salak honako erabaki hauek hartu ditu:*

*Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez, hau da, Arlo Zibileko Atalaren banaketa-arauak aztertzeari dagokionez, Salak Epailen Batzarraren erabakiaren berri izan du. Erabaki horren bidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urtarrilaren 29ko txosten juridikoan oinarrituta, Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Atalak (1., 2. eta 3. zk.ko Plazak) Lehen Auzialdiko 6. Epaitegiak (orain Familia eta Gaitasun Ataleko 2. zk.ko plaza) aztertzen zuen gai zibila ezagutu du, banaketa-arauak kontuan hartuta, eta, hala badagokio, Gobernu Sala honetara igortzen den indartze-neurriaren proposamenaren zain geratuko da.*

*Atal honek BJLOren 86.5 artikuluan babesean bere gain hartzen dituen gaiak dagokienez, Familia eta Gaitasun Ataleko 1. eta 2. zk.ko Plazetarako Epailen Batzarrean erabakitako banaketari dagokionez, Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea, eta jarduketa judizialen alderdi osagarriari buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, horiek Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako moduan zabaltzea.*

Barakaldoko Barruti Judizialeko Auzialdi Auzitegiko presidente andreari eskatzen zaio arau bateratuak dokumentu bakar batean bidaltzea, Gardentasunaren Atarian behar bezala argitaratzeko.

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez (Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 3 zk. ko Plaza ordezteko erretenaren sistema egokitzea), Salak jakin du egungo egutegiari eusten zaiola, eta erabaki du Epaien Batzarrari helaraztea ordezeko epaileen deia egiten den unean aztertu behar dela ea hori sar daitekeen kanpoko ordezeko epaileak deitzeko irizpideen F apartatuko salbuespenezko arau zehaztugabea (irizpide horiek Gobernu Sala honen 2025eko abenduaren 19ko Erabakiaren bidez onartu ziren).

Hirugarren puntuari dagokionez, hau da, kontsumitzaileak kontratu-dokumentazioa emateko eskatzen duen prozeduretako zenbatekoari buruzko irizpideak bateratzeari dagokionez, Salak hartutako irizpideen berri hartu du.

Laugarren puntuari dagokionez (hilean ikustaldirik gabeko epaien kopuruari buruzko irizpideak bateratzea), Salak uste du hartutako erabakia Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko magistratuek PZLren 182.2 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko duten borondatearen isla dela. Manu horrek pertsona bakarrek jurisdikzio-organoen titularrak gaitzen ditu jarraibide zehatz eta espezifikoa finkatzeko, ikustaldien seinalamenduaren pareko izapideen seinalamendua zuzenduko dutenak, kontuan hartuta, besteak beste, seinalamenduen edo izapide baliokideen kopurua eta egokitzen jotzen den beste edozein inguruabar, eta horien artean dago aipatutako Atalak duen lan jurisdikzionalaren karga handia, Gobernu Salak onartutako aurtengo lan-kargaren eta beharren mapan jasota geratu den bezala.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorritik, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezkontasuna kontrola dezan.

## **1.2. BORONDATEZ ORDEZKATZEKO ESKAERA.**

Salari jakinarazi zaio Durangoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 3 zk. ko Epategiko epaile titular Claudia Núñez Andrés andreak aurkeztutako eskaera, 2026ko borondatezko ordezkapenen urteko planean sartzeko, Durangoko barruti judizialerako arlo zibileko eta zigor arloko, eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko jurisdikzioetan.

Salak erabaki du eskaera aurkeztutzat jotzea, bertan adierazten diren baldintzetan, eta behin-behinean onartzea, bai eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzea ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 210.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

## **1.3. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, 5/2026 GOBERNU-KEXA ESPEDIENTEARI BURUZKOA.**

2026-04-09an presidenteak 5/2026 kexa-espeditentean emandako erabakiaren berri eman zaio Salari. Gobernu Sala honi zuzendutako idazkiaren bidez hasi zen espediente hori, eta honako hau dio, hitzez hitz:

**"I.- XXX jaunak, XXX jaunaren (hildako pertsona) familiaren ordezkari gisa jardunez, gobernu- eta diziplina-kexa bat aurkeztu du Arabako Probintzia Auzitegiko 2 zk.ko Ataleko kideen aurka, XXX. Magistratu horiek 2025eko azaroaren 26ko 752/2025 eta 23/2025 autoak ebaztean izandako jardunean oinarritzen da (899/2025 eta 941/2025 Sala-erroiluak), Vitoria-Gasteizko Instrukzioko 3 zk.ko epaitegiko 276/2025 zinpekoen epaimahaiaren prozeduratik eratorritakoak. Eskaeran Gobernu Salari eskatzen diote, dagozkion izapideak egin ondoren, behar diren informazio-eginbideak barne, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Diziplina Ekintzaren sustatzaileari helaraz diezaiola, BJLOren 417.14 eta 418.11 artikuluetan xedatutakoaren babesean izan zitzakeen diziplina-erantzukizunak argitzeko. Eskaeraren oinarri diren alegazioetan honako hau adierazten da:**

a) Idazkiaren xede diren ebazpenei kasazio-errekurtsoa jarri zaie Auzitegi Gorenako Zigor Arloko Salan. Ebazpen horiek baliogabetu egiten dute zinpekoen epaimahaiaren aurretiazko eginbideak prozedura bihurtzea doloeko giza hilketaren/erailketaren delitu batengatik, eta erabakitzen dute zuhurtziagabekeriazko homizidio-delituaren prozedurak jarrai dezala, dolo-lesioekin batera.

b) Aipatutako ebazpenek ageriko arretarik eza erakusten dute dokumentatutako datu faktikoei dagokienez, bidezaintzako grabazioei eta Polizia Judizialaren atestatuei dagokienez.

c) Auzitegi Gorenak kausazko loturari buruz emandako jurisprudenzia nabarmen urratzen dute.

d) modu arbitrarioan baztertzen dute maltzurkeriaren eta sorospen-eginbearra ez betetzearen delituaren balorazioa; extra legem betekizunak eskatzen dituzte doloa baztertzeari buruz, delituaren teoriarekin bateraezinak diren arrazoibideekin, eta

e) Jurisdikzio-gehiegikeria izatea, epai aurreratu bat prozesuko une desegoki batean ebaztsi izana.

Egun berean, beste idazki bat aurkeztu zuen. Bertan, dokumentazio osagarri gisa, honako hau erantsi zuen: Eusko Jaurlaritzako Segurtasuna Koordinatzeko zuzendariaren ebazpen-proposamena, XXXren aurka segurtasun pribatuko eginkizunak betetzeko irekitako zehapen-espeditentean emana, enpresaren parterik eta langileen parterik egiaztatu gabe, eta ii) familiak azken urteetan enpresa horretako atezainek izan dituzten indarkeriazko ekintzengatik jasota dituen atestatuen zerrenda, Ertzaintzak eta Gasteizko Udaltzaingoak emana.

**II.- Alegazioak irakurrita, agerian geratzen da auzitan jartzen dena dela jurisdikzioaren egikaritze-modua, berariazko tratamendu jurisdikzionala jasotzen ari den premisa batetik abiatuta – argudio-absentzia edo -irrazionalitatea –: bi autoen aurka jarritako kasazio-errekurtsuak eskaintzen duena, zeinei balizko gobernu-diziplinazko erantzukizuna lotzen baitzaie.**

Jurisprudenziaren bereizketa klasikoa kontuan hartuta (denen erakusgarri, Auzitegi Gorenaren 2019ko otsailaren 20ko epaia, 39/2018 errekurtsua, 2020ko urtarrilaren 30ekoa, 446/2018 errekurtsua, eta 2020ko urriaren 21ekoa, 274/2019 errekurtsua), epaileek estatutu juridiko-profesional espezifikiko baten mende (ikuskapen-jardueraren eremuan) dauden eragile publiko gisa jardutearen eta jurisdikzio-ahalaren titular gisa jardutearen artean (gobernu-jardueratik kanpo eta prozesu-legeek ezarritako errekurtsuen bidezko kontrol espezifikokoaren mende), argi dago BJLOren 417.14 eta 418.11 artikuluetan aurreikusitako diziplinazko arau-hausteak (errekurtsogileak aipatutakoak), hala badagokio, salatutako argudio-irrazionalitatea edo -zurztasuna jurisdikzio-ordenan deklaratu denean baino ezin direla gertatu. Kasu horretan, alderdi salatzaileak berak adierazten du ebazpen judizialak legeko kontrol arruntaren eta lehenetsiaren mende daudela: lege prozesalean aurreikusitako errekurtsuaren egikaritzak osatzen duena (kasazio-errekurtsua Auzitegi Gorenean). Beraz, ezin da mugatu diziplina-erantzukizunerako lekurik dagoen ala ez.

Hori dela eta, ez da bidezkoa XXX jaunak XXX hildakoaren familiaren ordezkari gisa egin nahi duen diziplina-jarduera sustatzea.

Akordio honen berri eman bekio Gobernu Salako Batzorde Iraunkorrari hurrengo bileran".

Salak aho batez berretsi du proposamenaren edukia, eta erabaki du interesdunari jakinaraztea eta erabaki hori eta idazkia Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Herritarren Arretarako Unitatera bidaltzea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **1.4. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA: BORONDATEZKO ORDEZKAPENEN ZERRENDAN SARTZEARI BURUZKOA.**

Salari jakinarazi zaio BJKNren Batzorde Iraunkorrek 2026ko apirilaren 7ko bileran hartutako erabakia. Erabaki horren arabera, Marcos Amor Bayona jauna, Getxoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 2. zk.ko plazaren titularra, 2026ko borondatezko ordezkapenen zerrendan sartuko da, Bilboko Barruti Judizialerako, Jurisdikzio Zibilean eta Getxoko Barruti Judizialean.

Auzitegien gobernu-organoei buruzko uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 14.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, Gobernu Salen egintzen aurka, osoko bilkuran edo batzordean eratuta badaude, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, eta, hala badagokio, berrikuspen-errekurtsioa ere aurkeztu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen epe, modu eta arrazoiengatik. Aipatutako 39/2015 Legearen 122.1 artikulua xedatzen du gora jotzeko errekurtsioa jartzeko epea hilabetekoa izango dela egintza espresua bada.

#### **1.5. SEME-ALABA ZAINTEKO LANALDI-MURRIZKETA LUZATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

Salari jakinarazi zaio presidente jaunak 2026-04-15ean egindako txostena, XXX Magistratu andreak egindako luzapen-eskaerari buruzkoa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzordearen 2025/05/13ko Erabakiaren bidez emandako lanaldi-murrizketarena, hitzez hitz honako hau dioena:

*"Karrera Judizialaren 2/2011 Erregelamenduaren 223.h) artikulua xedatzen duenez, epaileek eta magistratuek eskubidea izango dute minbizia edo iraupen luzeko ospitaleratzea dakarren beste edozein gaixotasun larri duen seme edo alaba adingabea zaintzeko, ospitaleratzeak eta tratamendu jarraituak irauten duten bitartean, baldin eta zuzeneko zaintza jarraitua eta iraunkorra behar badu, adingabeak gehienez hemezortzi urte bete arte, lanaldia erdira murrizteko.*

*Xedapenak murrizketa bat aurreikusten du, eta, beraz, ez du barne hartzen jurisdikzio-jardueratik aldi baterako libratzea. Bidezkoa da, beraz, murrizketa hori finkatzea, kontuan hartuta murrizketaren gutxienezko muga lanaldiaren erdia dela, eta gehieneko murrizketa, manuak hori baimentzen ez duelako salbuespena iritsi gabe, seme-alaba adingabea zaindu ahal izateko beharrezkoa dena izango delarik. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, halaber, helburu hori bete ahal izateko, posible dela murrizketa lanaldi osoetan metatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak onartu duen bezala (denak adostuta, 2015eko urriaren 10eko erabakia).*

*Premisa horietatik abiatuta, honako hauek kontuan hartuta: i) XXX (XXX magistratu andreak) bere funtzio jurisdikzionala betezen duen organo mota kontutan izanda ii) semearen edo alabaren zaintzak behar duen arreta intentsibo eta iraunkorra, gaixotasun mota eta familia-sistemaren inguruabarrak kontuan hartuta, eta iii) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek magistratu berari buruz 2024ko maiatzaren 23ko bilkuran hartutako erabakia, jakinarazten dut, nire ustez, bidezkoa dela ordura arte baliatzen ari zen lanaldiaren % 99ko murrizketari eustea. Murrizketa horrek, garai berean, entzunaldi publikoko aldiak murriztea ekarriko du, eta, adierazitako murrizketarik ez balego, magistratuak bete beharko lituzke. Murrizketa hori lanaldi osotan, astetan edo hilabetetan metatu ahal izatea proposatzen da, lanaldi-murrizketa onartzen den aldiaren barruan. "*

Salak presidente jaunaren txostena berretsi du, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzea erabaki du. Halaber, adierazi du magistratuaren ordezkapena, eskatutako lanaldi-murrizketaren luzapena baimentzen bada, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 207. artikulua eta hurrengo arabera egingo dela, erabakitzen den murrizketa-ehunekoa kontuan hartuta.

## **2. Ordezko magistratuei eta ordezkoei buruzkoa**

### **2.1. OSCAR MARTÍNEZ ASTEINZA JAUNAREN ALDEKO DEIA BERRESTEA.**

Salak aho batez erabaki du Bilboko Auzialdi Auzitegiko Magistratu-presidente jaunak egindako deia berrestea Oscar Martínez Asteinza jaunak ordezkoei kargua bete dezan Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 1 zk.ko Plazan, 2026ko apirilaren 21ean, titularraren XXX dela eta; dei hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kanpoko ordezkoei dei-irizpideak berrikusteko 2025eko abenduaren 19ko erabakian ezarritako arabera egiten da.

Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera, kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio Erabaki honen testigantza Bilboko Auzialdi Auzitegiko Magistratu-presidente jaunari, iragarki-taulan 30 egunetz argitaratzeko.

### **2.2. MARÍA JOSÉ MITXELENA ELIZETXEAREN ALDEKO DEIA BERRESTEA.**

Salak aho batez erabaki du Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea, María José Mitxelena Elizetxeak ordezkoko epaile-kargua bete dezan Donostiako Auzialdi Auzitegiko Lan-arloko Ataleko 2. zk.ko Plazan, 2026ko maiatzaren 4tik 2026ko maiatzaren 15era arte, biak barne, titularrari jurisdikzioa aldatzeko ikastarora joateko emandako baimenagatik; ikastarorako baimena izan aurretik seinalamenduak bazeuden. Mitxelena ordezkoko epaile andreak Auzialdi Auzitegiko Lan-arloko Ataleko 2. zk.ko Plazan betetzen ditu bere eginkizunak, titularrak eszedentzia hartu bitartean XXX dela-eta, bai eta 2024ko oporrak ere. Beraz, egiten den deia bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kanpoko epaileak deitzeko 2025eko abenduaren 19ko irizpideen erabakiaren 1-F artikuluan ezarritakoarekin bat.

Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera, kanpo-ordezkapenera jo beharra dutenen artean dagoela.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen testigantza Magistratu epaile dekanok jaunari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.

### **2.3. AINHOA FLÓREZ GALLARDOREN ALDEKO DEIA BERRESTEA.**

Salak aho batez erabaki du Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea, Ainhoa Flórez Gallardo andreak ordezkoko epaile-kargua bete dezan Donostiako Auzialdi Auzitegiko Zigor-arloko Ataleko 1 zk.ko Plazan, 2026ko maiatzaren 6tik 2026ko maiatzaren 8ra, biak barne, titularra epaile dekanoen jardunaldietara joateagatik. Aldez aurreko seinalamenduak daudenez, egiten den deia bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kanpoko ordezkoko epaileak deitzeko 2025eko abenduaren 19ko irizpideen akordioaren 1-F artikuluan ezarritakoarekin.

Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera, kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio Erabaki honen testigantza Magistratu Epaile dekanok jaunari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.

**2.4. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 15EKOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, SILVIA VIÑEZ ARGÜESO ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko apirilaren 15ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Arabako Probintzia Auzitegiko presidente jaunak SILVIA VIÑEZ ARGÜESO ordezko magistratu andrearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, Arabako Probintzia Auzitegiko presidentek egindako deia berrestea erabaki da, SILVIA VIÑEZ ARGÜESO andreak ordezko magistratu kargua bete dezan 2 zk.ko Atalean, BJLOren 373.5 artikuluekin bat, atal horretako titular bati, 2026ko apirilaren 14tik apirilaren 20ra arte, biak barne, baimena eman zaiolako.*

*Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Arabako Probintzia Auzitegiko presidente jaunari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran.*

**2.5. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO MARTXOAREN 30EKOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, MARÍA JOSÉ MITXELENA ELIZETXEA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko martxoaren 30ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak MARÍA JOSÉ MITXELENA ELIZETXEA ordezko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea erabaki da, MARÍA JOSÉ MITXELENA ELIZETXEA andreak ordezko epaile-kargua bete dezan Auzialdi Auzitegiko Lan-arloko Ataleko 2 zk.ko Plazan, herri berean, titularrari 2024ko oporrak eman zaiolako, 2026ko apirilaren 15etik maiatzaren 3ra.*

*Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Magistratu Epaille dekanari jaunari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

**2.6. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO MARTXOAREN 26KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, MARÍA INMACULADA LÓPEZ LLUCH ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko martxoaren 26an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak MARÍA INMACULADA LÓPEZ LLUCH ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea erabaki da, MARÍA INMACULADA LÓPEZ LLUCH andreak ordezkoko epaile kargua bete dezan herri horretako Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3 zk.ko Plazan, titularrari hiru eguneko baimena eman zaiolako 2026ko martxoaren 30etik apirilaren 1era.*

*Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoientatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari, iragarkitaulan 30 egunetz argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

**2.7. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO MARTXOAREN 31KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, AINHOA FLÓREZ GALLARDO ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko martxoaren 31n hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Tolosako Auzialdi Auzitegiko presidente andreak AINHOA FLOREZ GALLARDO ordezkoko epaile andreaken alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Tolosako Auzialdi Auzitegiko presidente andreak egindako deia berrestea erabaki da, AINHOA FLOREZ GALLARDO andreak ordezkoko epaile kargua bete dezan Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atalean, 3 zk.ko plazan, 2026ko apirilaren 1etik 7ra, guardia-eginkizunetan.*

*Deia berrestearen arrazoiak honako hauek dira:*

*1.- Tolosako Auzialdi Auzitegiko 3 zk.ko plaza da, 2/2026 lehiaketa argitaratu zenetik hutsik dagoena.*

*2.- Plaza hori 2/2026 lehiaketa argitaratu zenetik bete da, Auzialdi Auzitegi bereko 2 zk.ko eta 4 zk.ko plazetako titularren borondatezko ordezkapenaren bidez, eta ez dago ordezkoko epailerik.*

*3.- 2026ko apirilaren 8tik aurrera, Amaia Azcarate Lerga ordezkoko-epaile andreak beteko du dagokion deia egin ondoren.*

4.- 2026ko apirilaren 1etik 7ra bitartean ezin da aurretik aipatutako borondatezko ordezkapena egin, bi epaileek baimena baitute, 3 zk.ko plaza judizialeko epailea guardian dagoelarik.

5.- Ainhoa Flórez Gallardo ordezkoko epaile andreak hartu du kargua duela gutxi.

Horregatik guztiagatik, 2026ko apirilaren 1etik 7ra bitartean borondatezko ordezkapenik egitea ezinezkoa den plaza judizial huts bat denez, bidezkoa da Tolosako Auzialdi Auzitegiko presidente andreak ordezkoko epaileari egindako deia berrestea, Gobernu-Salaren 2025eko abenduaren 19ko Osoko Bilkurak onartutako dei-irizpideetan sartzen dena.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen testigantza presidentari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.

Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

## **2.8. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO MARTXOAREN 31KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, SILVIA IGLESIAS GONZÁLEZ ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko martxoaren 31n hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

"Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak SILVIA IGLESIAS GONZÁLEZ ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea erabaki da, SILVIA IGLESIAS GONZÁLEZek ordezkoko epaile-kargua bete dezan herri horretako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 4 zk.ko Plazan, bere titularrari XXX baimena eman zitzaiolako 2026ko apirilaren 7tik titularra itzuli edo titularra lanpostuaz jabetu arte, borondatezko ordezkapenagatik edo plaza hornitzeagatik, zerbizueginkizunengatik, destino-zain dagoen epailea izendatzeagatik, Lurralde atxikipeneko epailea, destinoaren zain dagoen epailea, LAEri laguntzeko epailea, praktiketako epailea edo BJLOaren 355 bis artikulua araberak atxikitako epailea izendatzeagatik.

Deia berrestea salbuespenekoa da, eta honako inguruabar hauek eragin dute:

1.- XXX magistratu titular andrea XXX egoeran da 2026ko martxoaren 30etik.

2.- 2 zk.ko eta 3 zk.ko Plazen titularrek, ordezkapen arrunta dagokienei, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak prestakuntza-ikastaroa onartuta eta baimenduta dute aurtengo apirilaren 7tik 9ra eta apirilaren 8tik 10era, hurrenez hurren.

3.- Getxoko Auzialdi Auzitegiko laugarren plazak eskumen eskusiboa du, baina ez baztertzaila, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloan.

Horregatik guztiagatik, eta zerbizuen jarraipena eta organo honen berezko premiazko neurrien ebazpena ziurtatzeko, Gobernu Salaren 2025eko abenduaren 19ko Osoko Bilkurak zehaztu gabeko salbuespeneko arau gisa onartutako dei-irizpideetan sartzen den deia egiten da.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.

Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

**2.9. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 1EKOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA (1).**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko apirilaren 1ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS ordezkoko epaile andrearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidenteak egindako deia berrestea erabaki da, ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS andreak ordezkoko epaile kargua bete dezan herri horretako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 2 zk.ko Plazan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.3 artikularekin bat, titularrari 2026ko apirilaren 7an ikastarora joateko baimena emateagatik.*

*Deia berrestearen arrazoia da, Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera. kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari, iragarkitaulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

**2.10. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 1EKOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA (2).**

Salak aho batez erabaki du presidenteak 2026ko apirilaren 1ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, Getxoko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea erabaki da, ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS andreak ordezkoko epaile kargua bete dezan herri horretako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 3 zk.ko plazan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.3 artikularekin bat, titularrari 2026ko apirilaren 8tik 10era ikastarora joateko baimena emateagatik.*

*Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari, iragarkitaulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran."*

**2.11. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 8KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, ELISA LOZON SILLERO ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidenteak 2026ko apirilaren 8an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak ELISA LOZÓN SILLERO ordezkotza epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak egindako deia berrestea erabaki da, ELISA LOZÓN SILLERO andreak ordezkotza epaile kargua bete dezan udalerririk horretako Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 4 zk.ko plazan, bere titularrari XXX eman zitzaielako, 2026ko apirilaren 9tik berriro lanean hasi arte edo titularra lanpostuaz jabetu arte, borondatezko ordezkapenagatik edo plaza hornitzeagatik, zerbitzu-eginkizunengatik, destino-zain dagoen epailea, Lurralde-atxikipeneko epailea, LAEri laguntzeko epailea, praktiketako epailea edo BJLOren 355bis artikularen arabera atxikitako epailea izendatzeagatik.*

*Deia berrestearren arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidenteari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

**2.12. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 13KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, MERCEDES SOLANA SÁENZ ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko apirilaren 13an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunak MERCEDES SOLANA SAENZ ordezkotza epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidenteak egindako deia berrestea erabaki da, MERCEDES SOLANA SAENZ andreak, presazko arrazoiei dagokienez, ordezkotza epaile kargua bete dezan 2026ko apirilaren 14tik 16ra (biak barne) herri horretako Auzialdi Auzitegiko Zigor-arloko Atalean (2. zk.ko Plaza), Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.5 artikularekin bat, plaza betetzen ari den ordezkotza epaile andreak baimena eman zaielako eta seinalamenduak daudelako.*

*Deia berrestearren arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza Auzialdi Auzitegiko presidenteari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

### **2.13. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIA BERRESTEA, 2026KO APIRILAREN 14KOA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, LAURA RAMOS BAEZA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA.**

Une honetan, Salatik alde egin du Emilio Lamo de Espinosa jaunak.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko apirilaren 14an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

*"Amurrioko Auzialdi Auzitegiko presidente andreak LAURA RAMOS BAEZA ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Amurrioko Auzialdi Auzitegiko presidenteak egindako deia berrestea erabaki da, LAURA RAMOS BAEZAK ordezkoko epaile-kargua bete dezan Amurrioko Auzialdi Auzitegiko 1 zk.ko plazan, titularra auzitegi nagusi honetako Gobernu Salaren Osoko Bilkurara joateagatik 2026ko apirilaren 17an, eta seinalamenduak egoteagatik eta aldi berean, genero-indarkeriaren arloko eskumenak bere gain hartzeagatik eskusiboki. 2. zk.ko plaza guardia-zerbitzuan dago.*

*Deia berrestearren arrazoia da Gobernu Sala honek 2025eko abenduaren 19ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.*

*Bidal bekio erabaki honen testigantza. Auzialdi Auzitegiko presidenteari, iragarki-taulan 30 egunez argitaratzeko.*

*Eman horren berri Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "*

## **3. Bake-epailei buruz**

### **3.1. GOBERNU-SALAK LEABURU-TXARAMAKO (GIPUZKOA) BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROZEDURA.**

Une honetan, Emilio Lamo de Espinosa jauna sartzen da Salan.

Salari jakinarazi zaio Leaburu-Txaramako Udalaren komunikazio bat, zeinaren bidez jakinarazten baita bake-epaile titularren eta ordezkoren hautaketa ez dela egin, hautagaitzak aurkezteko aurreikusitako epean hautagairik aurkeztu ez delako.

Bake-epaileei buruzko 3/1995 Erregelamenduaren 9.2 artikulua ezartzen duenez, bake-epaitegiko hutsunea gertatu eta hiru hilabeteko epean dagokion udalak ez badu aurreikusitako proposamena egiten, Gobernu-Salak bake-epailea zuzenean izendatuko du, eta, horretarako, aipatutako legearen 11. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Aurrekoarekin bat etorritz, Salak erabaki du Leaburu-Txaramako bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko prozedura hastea. Horretarako, lanpostu hutsa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da, eta ediktuak argitaratuko dira udaletxeko, Auzitegi Nagusiko, Tolosako Epaitegi Dekanoko eta Bake-Epaitegiko iragarki-taulan.

### **3.2. GAZTELUKO (GIPUZKOA) BAKE-EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Gazteluko (Gipuzkoa) Udalaren Osoko Bilkurak 2026ko martxoaren 17an hartutako erabakiaren proposamenaren berri eman da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Erregelamenduaren 8. artikulua aplikatu behar dela ulertuta, Salak aho batez erabaki du udalerrri horretako bake-epaile titular Miren Josune Gorostidi Elgarresta andrea izendatzea eta dagokion izendapena egitea, zeina EHAAn argitaratu beharko baita, eta horren berri emango zaie Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarri eta bere Barrutiko Auzialdi Auzitegiko Arlo zibileko eta Instrukzioko Ataleko epaileari, edo, hala badagokio, Auzialdi Auzitegiko presidenteari, eta Erregelamendu haren 12. artikuluan aurreikusitako ohartarazpena egingo da.

## **4. Diziplina Arloa**

(Gairik gabe)

## **5. Laguntza-neurriak**

**5.1. DONOSTIAKO AUZIALDI AUZITEGIKO ZIGOR-ARLOKO ATALEKO 1 ZK. KO PLAZARAKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN PROPOSAMENA, FUNTZIO-ALDAKETARIK GABE.**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.1 artikulua aplikatuz, eta Gobernu Salaren Batzordeak 2026ko martxoaren 18an hartutako erabakiaren bidez jakitera ematea erabaki zen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 26 bis 3.1 artikulua, Karrera Judizialeko kideen artean, zerbitzu-eginkizun baterako, funtzio-aldaketarik gabe, Donostiako Auzialdi Auzitegiko Zigor-arloko Ataleko 1 zk.ko Plazarako, 6 hilabeteko eperako, 2 urteko denbora-mugara arte luzagarria.

Batzordeak publizitatea egiteko irekitako epea igaro ondoren, honako eskaera hauek jaso dira:

Legezko lehentasunezko irizpideak 216 bis 3						
Eskatzailea	Jurisdikzioa	Tokia eta helmuga	Organoaren egoera			Hizkuntza/ EHFZ
			4. hiruhilekoa 2024			
			Sartutakoak	Ebatzitakoak	Izapidean	
MARCOS AMOR BAYONA	Zibila eta Zigor Arloa	Zibileko eta Instrukzioko Atala, Getxoko Auzialdi Auzitegiko, 2 zk.ko Plaza	Zibila:125 Zigor arloa:192	Zibila: 160 Zigor arloa: 149	Zibila: 999 Zigor arloa: 655	Hizkuntza: ez dago jasota EHFZ: Bai
MARÍA FRANCISCA FUSTERO AZNAR	Zigor arloa	Zigor Arloko Atala Donostiako Auzialdi Auzitegia 4 zk.ko Plaza	1458	1079	4831	Hizkuntza: ez dago jasota EHFZ: Bai
ALBA ASENSIO GARCÍA	Zibila eta zigor arloa	Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atala, Gernika-Lumoko Auzialdi Auzitegia. 4 zk.ko Plaza	Zibila:145 Zigor arloa:184	Zibila: 228 Zigor arloa: 179	Zibila: 619 Zigor arloa: 353	Hizkuntza: ez dago jasota EHFZ: Bai

1/2019						
Jarraibideko irizpideak						
Eskatzailea	Eskalafoia	Formakuntza	Antzeko organoetan jardutea	Argitalpenak	Kontziliazioa	Lanpostu hutsa ordezteko mekanismoa
MARCOS AMOR BAYONA	246 (Epaile)	Ez dago jasota	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atala, Getxoko Auzialdi Auzitegia.</li> <li>• Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko Santa Coma de Farners-eko Auzialdi Auzitegia</li> </ul>	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
MARÍA FRANCISCA FUSTERO AZNAR	3917 (Magistratua)	Ez dago jasota	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zigor Arloa, Donostiako Auzialdi Auzitegia, 4 zk.ko Plaza</li> <li>• Zigor Arloko 4 zk.ko Epaitegia. Donostia</li> <li>• Puerto del Rosarioko (Las Palmas) Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia.</li> </ul>	Ez dago jasota	Ez dago jasota	

ALBA ASENSIO GARCÍA	340 (Epaile)	Ez dago jasota	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gernika-Lumoko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Auzialdi Auzitegia. 4 zk.ko Plaza</li> <li>• Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko Santa Coloma de Farners-eko Auzialdi Auzitegia (Girona)</li> </ul>	Ez dago jasota	Ez dago jasota	

Eskainitako batzordera aurkezteko eskatzen diren merezimenduak betetzen dituzten eskatzaileen inguruabarrak eztabaidatu dira, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis artikuluan xedatutakoa jarraikiz.

Aipatutako lege-irizpideen arabera, Salak, kontuan hartuta gainerako lege-irizpideek (organo judizialaren egoera eta Autonomia Erkidegoko zuzenbide zibil espezifikoa) profil homogeenak dituztela hautagaien artean, María Francisca Fustero Aznar hautagaien soilik dauden irizpidetzat jotzen ditu, kontuan hartuta i) bere jarduera jurisdikzio-ordena berean egiten duela eta ii) bere eginkizunak udalerrin berean betetzen dituela. Gainera, osagarri gisa, eta Kontseiluak egindako 1/2019 Jarraibidea kontuan hartuta, eskalafoian posturik onena du.

Salak erabaki du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraztea María Francisca Fustero Aznar andrearen aldeko proposamena, Donostiako Auzialdi Auzitegiko Zigor-Arloko Ataleko 1 zk.ko Plazarako zerbitzu-eginkizuna funtzio-aldaketarik gabe betetzeko.

Jakinaraz bekio erabaki hau Donostiako Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari, Magistratu andreari eta eskaera onartu ez zaien eskatzaileei.

## **5.2. BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO FAMILIA, HAUR ETA GAITASUN ATALEKO 3 ZK. KO PLAZARAKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK BERRITZEKO PROPOSAMENA, FUNTZIO-ALDAKETARIK GABE.**

Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidenteak egindako proposamenaren berri eman zaio Salari, zerbitzu-eginkizun bat luzatzeari buruzkoa, funtzio-aldaketarik gabe, Patricia Bezos Torices andrearen alde, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3. zk.ko Plazarako. Honela dio, hitzez hitz:

*"ANER URIARTE CODÓN BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO PRESIDENTEAREN GOBERNU-AKORDIOA.*

*LEHENENGOA.- Eskatzen den neurria: zerbitzu-eginkizuna luzatzea, funtzio-aldaketarik gabe, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3 zk.ko Plaza Judizialerako. Zerbitzu-eginkizun horren bidez, hari dagokion familia-arlo guztiaz arduratuko da, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaz, tutoretzez eta barneratze psikiatrikoetz ere.*

*Batzordea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren erabakiz onartu zen, 2025eko otsailaren 27an; 2025eko otsailaren 28an hasi zen, eta egun horretan hartu zuen kargua Patricia Bezos Torices komisionatuak; bi aldiz luzatu zen, eta 2026ko ekainaren 30ean amaitu zen. Organo judizialean sartzen diren familia-gai guztiez arduratzen da, eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaren arloan astean 10 ikustaldi egiten dira ostiraletan. Magistratu komisionatuak zerbitzu-eginkizunean ezarritako prozedura kopurua bete du. Eskaera hau bat dator BJLOren, 216 bis 2 artikuluan ezarritakoarekin.*

*BIGARRENA.- Neurriaren oinarria:*

*2.1.- Neurriaren xede den organoaren egoera: Neurriaren helburua da Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3 zk. ko Plaza Judiziala indartzen jarraitzea (lehen Bilboko Lehen Auzialdiko 14. zk.ko Epaitegia zena), desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurrietan, tutoretzetan eta barneratze psikiatrikoetan espezializatua.*

*Gaur egungo egoera honako hau da (1. eranskin gisa erantsi da Justizia Administrazioaren letraduaren txostena, 2026ko apirilaren 13koa):*

*NUMO indarrean jarri arte, organo judizialak honako plantilla hau du gaur egun: 14 funtzionario, horietatik 5 erreformatu-beharrengatik izendatuak, eta, zehazki, kudeatzaile bat eta bi izapidegile, ekainaren 2ko 8/2021 Legearen 5. xedapen iragankorrek 3 urteko epean behartzen dituen berrikuspenei aurre egiteko, eta, arrazoi beragatik, erreformatu Justizia Administrazioaren letradu bat izendatu da. Azken batean, epaitegi horretan 14 funtzionariok, Justizia Administrazioaren 2 letraduk eta magistratu titular batek ematen dute zerbitzua, bai eta luzatu nahi den Batzordeak ere. Horri dagokionez, gehitu behar da atal bereko gainerako plazetako funtzionarioen batezbestekoa 8koa eta Justizia Administrazioaren letradu 1ekoa dela.*

*Epaitegiko magistratuaren lana honela antolatzen da: astean hiru egunez (astelehena, asteazkena eta ostirala), nahi gabeko ospitaleratze psikiatriko urgenteei arreta emateko, arlo horretako lege-eskakizunak eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina betetze aldera. Aurrekoei gehitu behar zaizkie, auzitegi beraren doktrinaren arabera, urgentziazko ospitaleratze psikiatrikoei aplikatzen zaizkien berme berberak aplikatzen zaizkienak, eta, horrengatik, egun horietan ere egiten direnak.*

*Astelehenean, bisita horiek egin ondoren, magistratuak desgaitasuna duten pertsonen elkarrizketak egiten ditu, dela egoitza judizialean, dela etxeetan/egoitzetan, dela bideodeien bidez, egin gabe dauden gaitasuna aldatzeko prozeduren ikustaldiak eta agerraldiak egiteko, bai eta laguntza-neurri judizialak hartzeko borondatezko jurisdikzioko espedienteak egiteko ere, aste bakoitzeko astearteetan. Seinalamenduen kopurua batez beste 15 edo 16 ikustaldi/agerraldikoa da.*

*Era berean, asteazkenetan, ospitaleetara joan ondoren, magistratuak desgaitasuna duten pertsonen elkarrizketak egiten dizkie, lehen aipatutako modu berean, aipatutako agerraldiak ostegunetan egiteko, 5. xedapen iragankorrak behartzen dituen berrikuspenak egiteko (hemen adierazi behar da berrikuspen-prozedurak ofizioz hasteko irizpidea hautatu dela, alde batek eskatuta hasten direnei kalterik egin gabe, lana modu eraginkorragoan eta efizienteagoan antolatzeko eta legezko epea betetzeko. Horregatik, Fiskaltza ostegunetan egonda, agerraldiak egun horretan egiten dira, eta, horrela, amaitutzat ematen da berrikuspen-ebazpena emateko izapidea). Ostegunetako agerraldien batez bestekoa 15 eta 16 artekoa da.*

*Adierazi den bezala, ostegunetan, ekainaren 2ko 8/2021 Legearen 5. xedapen iragankorra betetzeko agerraldiak egiteaz gain, Borondatezko Jurisdikzioaren Legean aurreikusitako agerraldiak egiten jarraitzen da.*

*Azkenik, ostiraletan, lehen aipatutako premiazko barneratzeak egiteaz gain (psikiatrikoak zein egoitzakoak), aipatutakoetatik edozein motatako jarduketak aipatzen dira, astean zehar denborarik ez izategatik egin ezin izan direnak, eta, zehazkiago, ohiko ospitaleratze psikiatrikoak eta egoitza-ospitaleratzeak, zeinetan azterketak ere egiten baitira gorago azaldutako moduan. Gaineratu behar da, halaber, hala badagokio, egin gabe dauden gaitasuna aldatzeko prozeduren agerraldiak eta konplexutasun bereziko laguntza-neurri judizialak hartzeko borondatezko jurisdikzioko espedienteak egiten direla, horretarako ezarritako egunean, hau da, astearteetan baino denbora gehiago behar dutenak.*

*Plaza Judizialak, sortu zenetik, Bilboko barruti judizialean banatzen diren familia-gaien % 20 jaso zituen Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegi gisa (gainerako % 80a 5. eta 6. epaitegien artean banatzen da), eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaren, tutoretzen eta nahi gabeko barneratze psikiatrikoen arloan banatzen diren auzgai guztiez soilik arduratu da eta arduratzen jarraitzen du. Ezintasunen, tutoretzen eta barneratze psikiatrikoen arloko lan-karga onartezina dela kontuan hartuta, epaitegiak etengabeko errefortzua izan zuen 2014tik familia-arloan, zerbitzu-eginkizunen modalitatean, funtzio-aldaketarik gabe 2016ko azarotik.*

*2021eko martxoaren 1etik aurrera, Bilboko Lehen Auzialdiko 16 zk.ko Epaitegia sortu zenean (gaur egun, 4 zk.ko Plaza Judiziala), eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko martxoaren 3ko Erabakiarekin (2021eko martxoaren 12an argitaratua), familia-arloko auzigai berriak sartzeari utzi zion; hala ere, legez, organo judizialean aurrekari bat duten mota horretako auzigaiak jasotzen jarraitzen du.*

*Zehazki, erantsitako Justizia Administrazioaren letraduaren txostenen datara arte, 2024an 4.835 auzigai erregistratu ziren; 2025ean, guztira, 5.551 auzigai sartu ziren, eta 2026ko lehen hiruhilekoan, 1.730 prozedura. Aurten baimen judizialeko 69 prozedura, jaraunspena onartzeko eta arbuizatzeko 15 prozedura, 167 laguntza-neurri judizial, 344 kuradoretza, 93 berrikuspen eta 21 familia-prozedura erregistratu dira.*

*Abenduaren 28ko JUS/1415/2018 Aginduan, zeinaren bidez argitaratzen baita Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren arteko akordioa, organo judizialen lan-karga neurtzeko sistema zehaztekoa; urtean 1.323 auzitan finkatzen da familia-epaitegi batentzako lan-karga, borondatezko jurisdikzioa eta betearazpenak barne, eta 704 auzigaitan, berriz, Ezintasunen Epaitegi batentzako.*

*2.2.- Auzien atzerapena edo metaketa eragin duten arrazoen adierazpen arrazoitua: aurreko eskaeretan adierazi zen bezala, Bilboko barruti judizialaren egiturazko defizita da. Plaza, magistratu bakar batekin (eta, berriro diogu, Justizia Administrazioiko 14 funtzionariok eta 2 letraduk egiten dute lan horretan), ezin da familiaren gaiak arduratu, ezta laguntza-neurrien, tutoretzen eta barneratzeen prozeduren osotasunaz ere, eta hori, gaur egun, larriagotu egin da aurreko erregulazioaren arabera eratutako legezko zaintzako erakundeak berrikusteko adierazitako behararekin. Horrek, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko prozeduren*

gorakada nabarmenarekin batera, bideraezin bihurtzen du magistratu bakar batek organo judizialaren lan-karga guztiari aurre egin ahal izatea.

2.3.- *Organo judizialaren lan-bolumenaren eta ebazteke dauden auzien kopuruaren eta motaren aipamena: gaur egun, azken hiruhilekoko estatistikaren arabera, epaitegiak 4.641 auzigai ditu izapideetan.*

2.4.- *Neurriaren oinarria: Lan-karga magistratu bakar batek egin dezakeena baino handiagoa da; izan ere, errefortzu-neurria luzatzen ez bada, astean sei egun behar dira lan guztia egiteko. Horregatik, errefortzu bat mantendu behar da, familiaren arlo osoaz arduratuko dena, eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzaren arloan astean gutxienez 10 ikustaldi egin ahal izango dituen.*

*HIRUGARRENA.- Jarduketa-plana:*

3.1.- *Neurriaren luzapena: Patricia Bezos Toricesi emandako zerbitzu-eginkizuna sei hilabetez luzatzea, funtzio-aldaketarik gabe, eta, aldi berean, luzatzeko aukerarekin.*

3.2.- *Epailearen edo laguntza-taldearen eginkizun zehatza: organo judizialean sartzen den familia-gai guztiari arreta ematen jarraitzea, eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko astean 10 ikustaldi egitea, ostiraletan.*

*LAUGARRENA: Ondorioa eta eskaera: Horregatik guztiagatik, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3 zk.ko Plaza Judizialeko zerbitzu-eginkizuna funtzio-aldaketarik gabe luzatzea eskatzen da, Patricia Bezos Toricesi emanikoa, familia-arlo osorako, eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko astean 10 ikustaldi egiteko».*

Salak erabaki du aipatutako proposamena bere egitea, eta, ondorioz, komisionatuak adostasuna eman duenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea zerbitzu-eginkizuna berritzeko, Patricia Bezos Torices andrearen alde, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko 3. zk.ko Plazarako, beste sei hilabetez, plaza hori beharrezkoa izateko arrazoiei eusten zaielako.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.2 artikulua arabera, Salak erabaki du proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Zerbitzura bidaltzea.

### **5.3. BI ZERBITZU-EGINKIZUN BERRITZEKO PROPOSAMENA, FUNTZIO-ALDAKETARIK GABE, BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALEKO 15 ZK.KO PLAZARAKO.**

Bilboko Auzialdi Auzitegiko magistratu-presidente jaunak egindako proposamenaren berri eman zaio Salari, zerbitzu-eginkizun bi luzatzeari buruzkoa, Amaia del Cid Madariaga eta Marcos Bermúdez Ávila, biak Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 15 zk.ko Plazarako. Honela dio hitzez hitz:

*"BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ANER URIARTE CODÓN PRESIDENTEAREN GOBERNU-AKORDIOA, BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALEKO 15. ZK.KO PLAZA JUDIZIALARI BURUZKOA.*

*LEHENENGOA.- Eskatzen diren neurriak: zerbitzu-eginkizunak luzatzea funtzio-aldaketarik gabe, Amaia del Cid Madariaga eta Marcos Bermúdez Ávilari, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 15 zk.ko Plaza Judizialerako. Eskumen eskusiboa eta baztertzaila du Kontratazioko Baldintza Orokorren banakako ekintzak ebazteko hipoteka-bermedun maileguen esparruan, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa denean. Eskaera hau bat dator BJLOren 216 bis 2. artikuluekin.*

*Gaur egun, epaitegiak honako zerbitzu-eginkizun hauek ditu onartuta:*

*1.1.- Funtzio aldaketarik gabeko zerbitzu-eginkizun bat, Marcos Bermúdez Ávila magistratuari emana (Bilboko Auzialdi Auzitegiko Merkataritza Arloko Ataleko 1 zk.ko Plaza Judizialaren titularra), 2026ko ekainaren 30era arte, baina martxan jarri ez dena, aurrekontu-ondorioetarako baimenik ez duelako.*

*1.2.- Funtzio-aldaketarik gabeko zerbitzu-eginkizun bat, Amaia del Cid Madariaga (Bilboko Lehen Auzialdi Auzitegiko Merkataritza Arloko 3.zk.ko Plaza Judizialaren titularra), 2026ko ekainaren 30era arte, baina ez da martxan jarri aurrekontu-ondorioetarako baimenik ez duelako.*

*BIGARRENA.- Neurriaren oinarria:*

*2.1.- Neurriaren xede diren organoen egoera: Neurriaren helburua arlo zibileko ataleko Plaza Judiziala indartzea da, Bilbon adierazitako ekintzak ebatzen dituen, Bizkaia osorako. Gaur egungo egoera honako hau da (1. eranskin gisa erantsi da organo horren titularra den Justizia Administrazioaren letraduaren txostena, 2026ko apirilaren 14koa):*

*- Lehen Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia zena 2018ko uztailaren 1ean hasi zen lanean, arlo horretako eskumen eskusibo eta baztertzailarekin. Orain arte, modu masiboan erregistratu ditu auzigaiak: 2.690 2018an, 4.287 2019an, 3.122 2020an, 4.367 2021ean, 2.959 2022an, 3.409 2023an, 15.423 2024an, 3.645 2025ean eta 331 2026an, eta orain arte. Hori guztia, 40.228 auzigaitarako guztira. Epaitegiak 11.175 auzigai ditu hasteke, 3.199 izapidetzen, eta 825 auzigai ebatzita ekitaldi honetan.*

*Magistratu titular batek, Justizia Administrazioaren letradu titular batek, errefortzu-eginkizunetan dagoen Justizia Administrazioaren letradu batek eta justiziako hamabi funtzionarioek osatzen dute Plaza.*

*2.2.- Auzigaien atzerapena edo metaketa eragin duten arrazoien adierazpen arrazoitua: Espainia osoan espezializatutako gainerako organo judizialek bezala, sartu diren eta oraindik sartzen diren auzigaien kopuru handiak gainditu egiten du horren inguruan egin daitekeen edozein aurreikuspen. Abian jarri zenetik, bost urte hauetan (2020ko konfinamendua geldiaraztearekin batera), 40.228 auzigai jaso ditu guztira, eta horietatik 25.854 ebatzi dira.*

*2.3.- Organo judizialaren lan-bolumenaren eta ebatzteke dauden auzigaien kopuruaren eta motaren aipamena: adierazi den bezala, Magistratu Titularraren lanaz aparte, ezarritako moduluen oso gainetikoa, eta helburuak osorik betez garatu diren zerbitzu-eginkizun ezberdinak; auzigaien sarrera oso handia kontuan hartuta, bereziki 2024an, ebatzteke dauden 14.374 auzigaitan zenbatzen dira.*

*2.4.- Neurrien oinarria: Luzapen interesdunak (hau da, biak martxan jartzea) ezinbestekoak dira organo judizialaren kolapsoa saihesteko. Auzigai ugari sartu dira, eta horren ondorioz, ebatzteke dauden prozeduren kopurua oso handia da, nahiz eta magistratu titularrak Epaitegi mota horretako lan-moduluen oso gainetik lan egiten duen.*

*HIRUGARRENA.- Jarduketa-plana:*

*3.1.- Neurrien iraupena: bi luzapenek, funtzio-aldaketarik gabeko modalitatean, sei hilabeteko iraupena izango dute, eta, aldi berean, luzatu ahal izango dira.*

3.2.- *Epailearen edo laguntza-taldearen eginkizun zehatza: Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis 2.4 artikuluan eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 2020ko ekainaren 11ko Erabakian proposatzen da bi kasuetan 104 auzigai ebaztea, hilean seinalamenduak jarrita.*

*LAUGARRENA: Ondorioa eta eskaera: Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen da:*

*1.- Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 15 zk.ko Plaza Judizialean Marcos Bermúdez Ávila jaunari emandako zerbitzu-eginkizuna luzatzea, funtzio-aldaketarik gabe, 104 auzigai ebazteko eta hilean seinalamenduak jarrita.*

*2.- Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 15 zk.ko Plaza Judizialean Amaia del Cid Madariaga andreari emandako zerbitzu-eginkizuna luzatzea funtzio-aldaketarik gabe, 104 auzigai ebazteko, hilean seinalamenduak jarrita.*

*Hori da Bilbon eskatzen dudana, 2026ko apirilaren 14an».*

Salak erabaki du aipatutako proposamena bere egitea, eta, ondorioz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea bi zerbitzu-eginkizunak berritu ditzala Amaia del Cid Madariaga andrearen eta Marcos Bermúdez Ávila jaunaren alde, biak Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 15 zk.ko Plazarako, beste sei hilabetez, plaza hori behar izateko arrazoiek bere horretan dirautelako.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.2 artikuluen arabera, Salak erabaki du proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Zerbitzura bidaltzea.

## **6. Bestelakoak**

### **6.1. 739/2025 INFORMAZIO-EGINBIDEAREN ARTXIBATZEAREN BERRI EMATEA.**

Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Diziiplina Ekintzaren sustatzailearen jakinarazpenaren berri eman zaio, XXX jaunak Arabako Probintzia Auzitegiko 1. zk.ko Atalaren aurka aurkeztutako idazki bidez hasitako 739/25 Informazio Eginbidea artxibatze erabakiaren berri emanez.

### **6.2. 3781/2025 JARRAIPEN-ESPEDIENTEA ARTXIBATZEAREN BERRI EMATEA.**

Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuko Zigor Unitatearen jakinarazpenaren berri eman zaio, eta jakinarazi zaio 2026-03-16an erabaki dela 3781/2025 jarraipen-espeditentea artxibatzea, XXX epaile andreak eman gabe dituen epaiak kontrolatzeko eta garatzeko; horiek jasota daude organoaren abokatuaren ziurtagirian, 2025eko urriaren 28koa, Gernika-Lumoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atalean (4 zk.ko Plaza), bere garaian jarraipen-espeditentea irekitzea eragin zuten ebazpen guztiak eman zirelako.

### **6.3. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK IRIZPIDEAK BATERATZEKO HARTUTAKO AKORDIOEN BERRI EMATEA.**

2026-03-24ko bileran Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari. Erabaki horren bidez, Justizia Auzitegi Nagusietako gobernu-sala guztiei gogorarazi zaie vicesecretaria@cgpj.es helbide elektronikora bidali behar dituztela Probintzia-Auzitegiek eta Auzialdi Auzitegiek Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientziaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruz hartutako irizpideak bateratzeko akordio guztiak.

### **6.4. BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO PRESIDENTEAK PROKURADOREAK ERAIKIN JUDIZIALETARA SARTZEARI BURUZ HARTUTAKO GOBERNU-AKORDIOAREN BERRI EMATEA**

Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidenteak 2026ko apirilaren 7an hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari, honako hau dioena:

*"Bizkaiko Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuko dekanok Bilboko Justizia Jauregietan elkargokide diren profesionalen sarrera ordu erdi aurreratzeko eskaera aurkeztu du. Adierazi da gaur egun 8:30 dutela ezarrita, egoera aldatu egin delako. Adierazi duenez, ordutegi hori ezarri zen unean, sarbide judiziala ez zen sistema elektronikoen bidez egiten (profesionalaren identitatea egiaztatzen zuten sistemak), eta justizia-administrazioaren funtzionamendua ez zen egungoaren bezalakoa; izan ere, bertan ez zen beharrezkoa langileei zentzuzko denborarik ematea jakinarazpenak banatzeko, zigilatzeke, etab. Gaineratu duenez, Avantius-PSP plataforma ezarri zenetik, 8:00etan ematen zaizkie jakinarazpenak prokuradoreei.*

*Hori dela eta, eskatzen du ordua 08:00etan aurreratzeko, plataforman kudeaketak egin ahal izateko, dokumentazioa inprimatzeko, jasotako jakinarazpenak kontsultatzeko; izan ere, 9:00etan jendearentzako irekiera gertatzen da, ikustaldiei eta organo judizialen aurreko kudeaketei ekiten zaie, eta, horretarako, goizeko 8:00etan jasotzen diren eguneroko jakinarazpenak aldeztu aurretik prestatu eta aztertu behar dira.*

*Egindako eskaera arrazoizkotzat jotzen da, bertan deskribatutako egoera-aldaketa efektibotik eta Euskadin ezarritako egungo espeditente digitaletik abiatuta, erreforma prozesalekin bat etorritz. Ondorioz, Barroeta Aldamar eta Buenos Airesko justizia-jauregietan sartzeko ordua 8:00etan aurreratzeko baimena eman behar zaie Kide Anitzeko Auzitegietako Prokuradoreei.*

*Jakinaraz bekie Ertzaintzaren segurtasuneko arduradunari, Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoa eta Gobernu Salari. "*

Sala jakitun geratu da.

## **ERABAKIAK JAKINARAZTEA.**

Salak aho batez erabaki du interesdun guztiei jakinaraztea bilera honetan hartutako erabakiak.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, amaitutzat eman da bilera. Bilera 10:00etan hasi da, eta 10:45ean amaitu. Ondoren, akta hau egin da, eta presidente jaunak sinatu du. Fede ematen dut.